

DIRU ITURRIAK

Gure proiektuak irabazi iturri bakarra izango du, eta honako hau bezeroei eskaintzen diogun zerbitzua hauek kontsumitzea izango da. Irabazi hauek ez dira aldakorrik izango, merkatuaren egoera aldatuta ere guk ipinitako prezioak berdinak izaten jarraituko dute eta. Salbuespenak egongo dira, izan ere, baliteke gabonetan edo beste garai berezi batean beherapenak egitea. Hauek bezero gehiago lortzeko xedearekin egingo ditugu. Eskaintza berezi hau (beherapenena) mugatua izango da, eta hilabete bat iraungo du gehienez.



Guk izango dugun diru sarrera bakarra bezeroek gure zerbitzua kontsumitzeagatik ordainduko digutena da. Ez dugu beste diru sarrerarik izango. Beraz, gure proiektuaren irabazien %100-a bezeroen eskuetan egongo da. Azken-finean zerbitzu bat eskaintzen dugu eta ez ditugu adibidez mahaiak fabrikatzen geroago beste enpresa batek saldu ditzan. Horrenbestez gure irabaziak bezeroengan egongo dira beti.

BEZEROEN HARPIDETZA AUKERA DESBERDINAK ETA PREZIOAK

	SAIOKO (2 ordu)	HILABETEAN ZENBAT ORDU	URTEAN
BAKARRIK	2€	20*2€= 40€	12*40= 480€
BAKARRIK (ENTRENATZAILE AREKIN)	17€	8*17€= 136€	12*136= 1632€
TALDEAN (ENTRENATZAILE AREKIN)	10€	8*10€= 80€	12*80= 960€

BEZEROEN HARPIDETZAREKIN LORTUKO DUGUNA:

	BEZERO KOPURUA	IRABAZIKO DUGUNA (Hilabetea)	IRABAZIKO DUGUNA (Urtea)
BAKARRIK	70	70*40= 2800€	2800*12=33.600€
BAKARRIK (ENTRENATZAILE AREKIN)	10	10*136=1360€	1360*12= 16.320€
TALDEAN (ENTRENATZAILE AREKIN)	3*7=14 3 → talde kopurua 7 → taldeko zenbat pertsona	21*80= 1680€	1120*12= 20.160€
GUZTIRA	70 + 10 + 14 = 94€	2800+1360+1680= 5.840€	33600+16320+13440=70.080€

Hasiera batean denok diru kopuru bat jarri beharko dugu proiektua martxan jartzeko. Materialaren gastua 23.561,11€ dela jakinik eta urte osoan zehar bestelakoak (soldatak, telefonoa...) ordaintzeko 49.500,4€ beharko ditugula jakinik, taldekide bakoitzak 5.000€ bakoitzaren poltsikotik jartzea erabaki dugu, gastu guztiak ordaintzeko lehenengo urtean 85.061,51€ beharko ditugu eta. Hori dela eta, "funtsezko elkarteak" atalean aipatu dugun bezala, hasieran CaixaBank banketxeari 55.000€ ko mailegu bat eskatuko diogu, hasierako inbertsioak egin ahal izateko eta lehenengo hilabeteetako kostuak ordaintzen laguntzeko. Honetaz gain, jakin dugu Eusko Jaurlaritzak hainbat negozio berriei diru-laguntzak ematen dizkiela. Beraien [webgunean](#) ikusi dugunaren arabera, 1.500€ inguruko diru-laguntza bideratuko digutela ikus dezakegu, ezarritako baldintzak betetzen ditugulako. Honi %15 erantsiko zaio 18 urte baino gehiago ditugulako. Ondorioz, gure taldeak guztira 1750€ko diru-laguntza jaso dezakela aurreikusten dugu. Geuk jarritako dirurarekin eta eskatutako maileguarekin nahiko justu ibiliko garenez, gehigarri hau oso ondo etorriko zaigu.